



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2018KO EKAINAREN 21EKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Premiazko bilera berezia.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2018.06.21.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea:

Mentxu Peña Lizarazu and.

Zinegotziak:

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Zinegotziak onartu dute bilera egitea eta dagoen beharra.

Aztergaiak:

1.-Eskolako obrak.

2.-Igantziko Udala: herriko igerilekurako aportazioa eskaera.

1.-ESKOLAKO OBRAK.

Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandako 94/2018 ebazpenaren bidez laguntzak emateko deialdia onesten du ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko.

Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandako 400/2018 bidez dirulaguntza ematen da Arantzako Udalari eskatutako obrak egiteko:

eskola eta gimnasioko kalefakzioa bereizteko, umeen komunak egokitzeko, kalderako atea aldatzeko, argiteria LED sistemara aldatzeko eta larrialdirako argiak jartzeko.

Lanen aurrekontua; 10.418,20 euroko da, BEZ kanpo eta diru laguntza 8.334,56 eurokoa (aurrekontuaren %80).

Kontuan hartuz ez dela 2018ko aurrekontuan partidarik horretarako.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako eskola publikoak obrak egiteko onartzea.
- 2) 2018ko aurrekontuaren 2. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.
- 3) Espedientea Idazkaritzan jartzea ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

2.-IGANTZIKO UDALA: HERRIKO IGERILEKURAKO APORTAZIOA ESKAERA.

Igantzik Udalak tarifa desberdinak ditu herriko igerilekura sartzeko Igantzin erroldatuak direnentzat eta kanpotarrentzat.

Aurreko urteetan Arantzako Udalak kopuru bat ordaindu dio Igantzik Udalari aranztarrei Igantzin erroldatuak diren bezala kobratzeko. Aurten 1.200,00 euro eskatzen du Igantzik Udalak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 1.200,00 euro ordaintzea Igantzik Udalari, Arantzako herritarrek Igantzik herritarrek ordaintzen duten prezio bera kobratzeko baldintza pean.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 19:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Mentxu Peña Lizarazu and.

